



San Juan kaleko sesterixia

Oñatin banastagiña erruz egon da kaliaz nahiz baserrietan. Banastagiñak batez be gaztaiña-zimitza ebalten euen euren lanak moldaitteko. Baiña **zumia** be ezagutu da gure herrixan: Buztinsolo, Altamira, Torrealde, Larraña, Zañartun eta beste hainbat lekutan ikusi dittugu zumaduiak. Zumiarekin **sesteruak** jarduten euen, otzarak, aulkixak, butakak eta beste zenbait gauza egitteko. **Sesterixak** etziran ugari, baiña jeneralian banastagiñak baiño langille gehixago bihar izaten zittuain, nahiz eta honeittatik asko zuma-zuriketan ibiltten ziran mutikuak izan.

Herritar asko gogoraketan gara Atzeko kaliaz eguen Obixaganeko sesterixiarekin. **Madinatarrena** zana. Baiña honeik Atzeko kalera fan aurretik, San Juan kaliaz jardun euen ofizio horretan, gero **Pedro Gundel** eta **Pablo Kernstock** alemanak hazur-lanetarako ebal euen lokalian. Lantegi horretan 1921-1922 urtera arte-edo egon ei ziran Obixagatarrak. Beste sesterixa bat euki euen Zumarragako **Buscatarrak** Ibarren, gerora plantxa-fabrikia jasoko zan lekuan.

Fotografixa hau Madinatarrak Atzeko kalera alde egin baiño lehentxuagokua da, 1921ekua. Aittatu dogun taille-rrorren ostian dago atarata, etxia eta errekiaren arteko terrenuan, unibersidadiaren parian. Atzeko arbolak Arkauzeneko jardiñekuak izango dira. Orain dala gutxira arte, itxura horretxekin irau dau inguru horrek.

Argazkixan agerketan diran gizakumien izenak honeitxek dira eskumatik ezkererra: **Patxi Orueta**, **Bixente Oñate**, **Pantaleon Jauregialzo** *Ehuliarena*, **Bitoriano Jauregialzo**, mutikua, aurrekuaren semia, **Marzelino Oñate** eta **Tomas Oñate**. Sesterixan honeik ebizten. Ezkerreko bentanan agiri dan gaztia **Rodrigo Astigarraga** dogu, gero urte askuan Kale barrixan zapaterua izango zana; eta atzekaldeko gizona, berriz, **Roman Banastagiña**. Hiru Oñatetarrak anaiak eta San Juan kaleko *Makatzenekuak* ziran; Pantaleon hurrengo etxekua, *Ehulienekua*, eta bera be ehulia zan, hau da, tejedoria, liñuaz ehuna egitten ebena. Etxe bixok oraintxe botatekotan dira.

J. E.

Milla esker Doroteo Kortabariari fotografixia izteiatatik eta argibiderik gehixenak emutiagatik.

OHARRA: Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatoz!

ALOÑA

Autoeskola



Ramon Irizar, 3 behea
Tfnoa: 78 24 91
OÑATI

CORTABARRIA

• Inmobiliari Agentzia • Aseguroak
• Aholkularitza

Blanca E. Cortabaria Elorza
Zuzenbidean lizenziatua. A.P.I. 303 zkia.

Kale Barria, 42 behea
Tfnoa: 943 - 78 05 87

20 560 OÑATI